

Isunak galdegin ditu epaileak ELB eta ahate hazleen aurka

Venta de proximidad de productos agroalimentarios

EHNE Bizkaia rechaza la propuesta del Gobierno Vasco de liquidar las asociaciones de desarrollo rural (ADRs) de la CAPV

«Bertako lehen gai bat transformatzeko aukera galdu dugu erroten galerekin»

Arrate Corres

AURKIBIDEA:

- 3 · EDITORIALA: «ANTEPROYECTO DE LEY DE DESARROLLO RURAL: HECHA LA LEY HECHA LA TRAMPA»
- 4 · «BERRITZ ASMA ETA GARA, HERRIAN HERRITIK», MIKEL HIRIBARREN
- 5 · «AUZOLAN COMO COMBUSTIBLE» AMAIA CARPIO
- 6 · «BERTAKO LEHENGAI BAT TRANSFORMATZEKO AUKERA GALDU DUGU ERROTEN GALERAREKIN» ARRATE CORRES.
- 10 · VENTA DE PROXIMIDAD DE PRODUCTOS AGROALIMENTARIOS
- 14 · ETXALDE TTUPIETAZ IKERKETA ABIATZEN DUTE IPARRALDEAN
- 15 · ISUNAK GALDEGIN DITU EPAILEAK ELB ETA AHATE HAZLEEN AURKA
- 16 · LOS NUEVOS AGRICULTORES DEBEN LIDERAR LAS ESTRATEGIAS FRENTE AL CAMBIO CLIMÁTICO PARA GARANTIZAR UN MODELO DE AGRICULTURA SOSTENIBLE Y RENTABLE
- 18 · EHNE BIZKAIA RECHAZA LA PROPUESTA DEL GOBIERNO VASCO DE LIQUIDAR LAS ASOCIACIONES DE DESARROLLO RURAL (ADRs) DE LA CAPV
- 20 · AGROEKOLOGIA EROSKETA EREDUAK ZIORDIAN
- 21 · EUSKAL HERRITIK VENEZUELAREKIN ELKARTASUNA! 10 URTE BIDE KOMUNALEAN!
- 22 · FRENTE AL CONSEJO DE MINISTROS DE AGRICULTURA DE LA UE, ECVC REIVINDICA LOS DERECHOS CAMPESINOS
- 24 · GANADERÍA EXTENSIVA, UNA OPCIÓN SOSTENIBLE TAMBIÉN PARA EL CLIMA
- 27 · DE LAS 31 BECAS DE ACERCAMIENTO AL SECTOR AGRARIO CONCEDIDAS POR HAZI, 16 SON EN PRODUCCIÓN ECOLÓGICA.
- 28 · FORMAZIOA



Anteproyecto de Ley de Desarrollo Rural: hecha la ley hecha la trampa

Este mes de Junio se ha hecho público el Anteproyecto de Ley de Desarrollo Rural, el 20 de Junio se presentó en sesión parlamentaria, y está en marcha el proceso de “participación” mediante la presentación de las alegaciones que se estimen. Es importante subrayar esta idea puesto que no ha existido ningún debate ni participación sobre la necesidad de actualizar los contenidos de la Ley de Desarrollo Rural con los agentes del sector agrario, no al menos con carácter oficial. Estamos nuevamente articulando la herramienta y sus mecanismos sin haber definido previamente los planes de desarrollo y sus objetivos. El Gobierno Vasco sitúa esta propuesta de anteproyecto de ley en el contexto del debate de la futura Política Agraria y Alimentaria de la Unión Europea, la cual establece en sus nuevas propuestas el diseño y desarrollo de nuevos Planes Estratégicos Comarcales para la articulación y desarrollo de la políticas de Desarrollo Rural, con el objetivo de dotar de mayor protagonismo y participación a las instituciones locales y a los colectivos y agentes sectoriales. La implantación de una nueva Gobernanza avanzada que actúe transversalmente en el medio rural, y se adapte a nuevos paradigmas; pretende ser articulada por parte del Gobierno Vasco mediante la concentración en HAZI de la gestión y dinamización de los proyectos de Desarrollo Rural, liquidando las Asociaciones de Desarrollo Rural mediante la absorción del personal técnico y eliminando de facto la participación de los agentes locales y los ayuntamientos. En el mismo anteproyecto se presentan las nuevas zonificaciones de implementación de las políticas de desarrollo rural, y no deja de ser un auténtico despropósito si tenemos en cuenta la ausencia de marcos y procesos de participación para la definición de los objetivos y contenidos de los mencionados Planes Estratégicos. Nuevamente se puede adivinar que las nuevas zonificaciones responden a la fórmula de maximizar las captaciones de financiación de los fondos europeos, y no a las necesidades de desarrollo rural y comarcal. Se puede intuir un claro trasfondo político en los elementos mencionados, se visualiza una gran oportunidad de consolidar la captación de recursos financieros del marco europeo (los fondos del segundo pilar para el Desarrollo Rural van a aumentar) y priorizamos las formulaciones que nos aporten mayores niveles de financiación; y por otra parte el control y gestión de esos recursos debe ser propia (es decir Gobierno Vasco). Nuevamente estamos asistiendo a una privatización encubierta con el objetivo final de controlar, desde las entidades creadas por el propio Gobierno Vasco, el contenido y desarrollo de los proyectos locales; creando diques de contención al aumento de participación de los agentes e instituciones locales durante los últimos años en las ADRs. El plazo de alegaciones está en marcha (muy significativa la coincidencia de esta tramitación de anteproyecto de ley y la composición de las nuevas corporaciones municipales) y habrá que activar los mecanismos necesarios para condicionar el contenido de este anteproyecto; pero no debemos olvidar dos cuestiones muy significativas. Por una parte la anterior Ley de Desarrollo Rural (10/98) fue aprobada por unanimidad en el Parlamento y está por ver qué mayorías se articulan en este proceso; y por otro lado ninguna Ley puede disolver las Asociaciones de Desarrollo Rural, cada una de ellas es soberana y esa potestad recae únicamente en su Asamblea. El debate está servido.



ETXALDE
nekazaritza iraunkorra

etxalde@etxalde.eus

www.elikaherria.eus

Lege Gordailua: SS 50-2015



Editorea: Etxalde Nekazaritza

Iraunkorra elkarte

Inprenta: Gertu S.Coop

Maiztasuna: Hilabetekaria

Aleak zenbakiko: 5.600

Berritz asma eta gara Herrian Herritik



Mikel Hiribarren

Zenbait aste gelditzen dira agorrril ondarrrean Miarritzen bilduko den G7a aintzin. Frantziak eta Macron-ek hartuko dute munduko buruzagi kuadrilla horren gidaritza. Lapurdi kostaldeko hiri elegante hortan elkartuko dira Estatu Batuak, Alemania, Japonia, Italia, Canada, Ingalterra eta Frantziako ordezkariak. Besteak beste klima aldaketa eta etorkinen arazo nagusiak omen dituzte aipagai, Afrikako kontinenteari begirada berezia egin nahi diote, desberdintasun ekonomikoen menderatzea ere agertzen dutela helburutan....

Bestalde, hamaika eztabaida ibili dira jakiteko nun kokatuko zen mogimendu zozialaren gailurra, G7ko kuadrillari ezezkoa adieraziko diona, eta munduak beste biderik hartu behar duela ozen deiadarkatuko duena. Azkenean iduriluke Endaia aldean elgarretaratuko direla berta-

tik bezala Europa ala urrunagotik hurbilduko diren ikuspegi desberdinetako alenatibatzale eta iraultzale guziak. Denek adostua dute naski aintzinetik planeta eta gizarteak lanjer gorrian daudela, uzten badira kapitalismoaren eta finantzia munduaren esku.

Nik nere aburuz pentsatuko nukeen mundu hau dantzan dabilatela enpresa handiek, baina badakit ez naizela gai horren salaketa larriegiaren arriskatzeko. Zorionez, ez du hamar egun irakurri dutala Frantziako langile sindikalista ospetsu baten elkarrizketa Liberation egunkarian. Hauxe dio Bernard Thibault CGTko buru izandakoak : « Ekonomia asko aldatu da.... Estatuak baino gehiago eramaiten eta agintzen dute zenbait multinazionalak. Gauregun, 80 000 transnazionalak erabiltzen dituzte zuzenean 240 milio langile eta badute eragina munduko bost langileta-

rik batengan. Hemendik hamabost urtetarat, izango dute eragina lau langiletarik batengan. Enpresa transnazional horiek badute Estatuak baino finantzia oinarri askoz sendoagorik. Eta usuago ikusten dira transnazioaletako nagusiak agintzen Estatu buruzagiei zer nola egin behar duten, ikusten diren baino politika arduradunak enpresa buruari deitzen adierazteko nundik eta nola ibili behar duten... »

Zoriontzen gaituena da ikusteak interes ekonomikorik gabeko adimendu kritikoz begiratzen bazaio munduaren martxari, politikariek ez daukatela zinezko eskurik norabideak markatzeko, dena bihotzik eta bururik gabeko kapitalismoaren menpeko dagola.

Nolaz utz ditzakegu beraz klima aldaketaren ala etorkinen ala ezberdintasun ekonomikoaren

auziak G7ko kuadrillaren esku ? Diru meta bat xahutuko dute aste betez Miarritzen eta Lapurdin gure bizkar, eta hitzaldi borobilez ez gaituzte enganatuko.

Klima aldaketaren gaia bakarrik begiratzen badugu hurbilagotik, haiek aurkezten dituzten aterabideak orainarteko ekonomia labeari sugaia edo egurra emateko modukoak dira. Dena egin da komertzioa hazteko, eta merkatu berriak zabaltzeko. Karbonoa, zeru sabaia iluntzen duen gaz tokziko hori bera ere, diru iturri eta merkatu berri egin dute.....

Bestelako munduaren martxa nahi dugu guk. Geldi komertzioa eta norgehiagoka ekonomikoa ardatz nagusiak egotetik. Aski naturaren ontasunak eta gizon emazteen menpekotasunak ekonomia hazteko molde nagusiak izatetik !

Auzolan como combustible



Amaia Carpio Muñoyerro

Vivimos en una sociedad individualista y el mundo rural-agrícola no se libra de esta realidad. La vida rural de nuestro territorio ya no se vertebra por los trabajos agrícolas que en momentos puntuales se hacían de manera colectiva, así como tareas de mantenimiento o imprevistos que afectaban a todos los habitantes de una comunidad o a una parte de ellos: lo que aquí llamamos auzolan.

Hoy, tendemos a trabajar con nuestros terrenos y animales de forma autónoma; la mayoría tenemos que tirar de teléfono o vehículo para comunicarnos con otra gente productora. El perfil de quien trabaja el campo también ha variado; en algunos casos no teníamos vinculación previa con la población donde desarrollamos nuestra actividad y, a pesar de que pasamos la mayor parte del día allí, no tenemos muchas oportunidades de socializar.

Pero el auzolan no se ha perdido; ha evolucionado.

Antes era una forma de socialización cotidiana del campo y hoy es casi una necesidad para algunas de nosotras de estar con nues-

tros iguales; que alguien te comprenda en tu lucha diaria porque gran parte de tu entorno vital se mueve en los parámetros urbanos-consumistas-capitalistas.

Muchas veces nos conocemos por actividades ligadas a nuestra profesión (asociaciones, formación, militancia...) en las que apuramos el tiempo del encuentro por los compromisos cotidianos y es en los auzalanak cuando las horas se nos hacen cortas. Esto no sucede sólo porque las tareas pendientes se realizan en unas pocas horas sino por el intercambio de saberes, conocer gente nueva, visualizar el lugar de trabajo y vida de tu semejante,... y empatizar y sentir que empatizan contigo.

También acuden personas de otros entornos, ya que los auzolanak ahora son trabajos puntuales en los que se lanza una invitación a familiares, amistades, amistades de amistades e incluso clientes de confianza. Hay quienes han metido pocas veces las manos en la tierra y hay de los que aprovechan cualquier excusa para resarcirse de la oficina y conectar con la naturaleza. Me maravilla ver cómo ponen tantas o más ganas que nosotras, cómo lo disfrutan. Cómo

algunos recuerdan veraneos o infancias en el campo que tuvieron que abandonar, con mitad de añoranza y mitad de ilusión.

Cuando finaliza el trabajo y ves los resultados no sientes que has perdido un día de trabajo en tu explotación, y te sientes parte de algo casi contrario a la vorágine del mundo individualista en que vivimos. Compartir. Como en el hamaiketako o cuando nos sentamos a comer pasado el mediodía: sale comida y bebida de todos lados, intercambiamos recetas, seguimos conversaciones que las tareas dejaron a medias, brindamos, reímos, cotilleamos,... Y siempre se hace corto: todos los auzolanak en los que he estado han sido experiencias bonitas y han surgido sinergias muy positivas, contactos, ideas,...

Los auzolanak ya no son una cuestión de supervivencia como antaño pero para nosotras es un combustible para seguir, para recargar energía, para seguir uniendo personas. ¡Que nunca desaparezcan mientras haya trabajo en el campo!

«Bertako lehen gai bat transformatzeko aukera galdu dugu erroten galerekin»

Arrate Corres, bere nebarekin batera Spiga Negra proiektuko kudeatzailea dugu. Gasteiztarra jaiotzez, baina toki askotan ibilia azken urteotan. Gaur egun Iruñea eta Malaga artean bizi da. Malagako Humilladero herrian dute Spiga Negra proiektuaren kokapena.

Nola hasi zen Spiga Negra proiektua?

Ni Gasteizen nengoenen elikadura burujabetza munduan gobernu kanpoko erakunde batetan lanean ibili nintzen, gero HAZIK emandako dinamizazio programa baten beka batekin Araba hegoaldeko herri oso txiki batetan ibili nintzen beti agroekologiarekiko lotura mantenduz. Herri txiki haretan konturatu ginen zerealak nahiz eta ekologikoak ekoiztu oso irteera zaila zutela. Transformazioa falta zan eta nahiz eta zereala eduki azken kontsumitzaileera ez zen heltzen, hau da, ogia edo pasta nork egin duen jakitea kontsumitzailearentzat erreza izan daiteke baina garia nork landatu duen

edota nondik datorren jakitea beste kontu bat da. Errota falta zegoela nabarmena zen.

Une horretan, nire nebak ingeniari industrialean bere karrera bukaerako proiektua aurkeztu behar zuen eta ni ere bekaren amaieran nengoen eta hasiera nahiz eta pixka bat imajinarioa izan proiektua, teoria horietatik praktikara pasatzea irudikatu genuen.

Proiektua egituratzeko prozesua luzea izan zen?

Bai, luzea. Proiektua hasi eta ezer egiten hasi arte bi urte baino gehiago igaro ziren. Diseinu guztiak guk geuk egin genituen.

Zergatik aukeratu zenuten pasta?

Ni Italian bizi izan nintzen, eta gastronomia asko gustatzen zitzaigun. Eta hasiera horretan kontsumo ekologikora heltzen zen pastaren gehiengo kanpotik etorria eta gainera industrialak ziren. Nahiz eta zigilu ekologikoa eduki, azken finean elikadura sistema industrialaren baitakoak ziren. Hau dela eta aukeratu genuen pasta.

Eta errota ere propioa izatea?

Garia eta zerealak oso lehengai globalizatuak izanda oso zaila da euren jatorria kokatzea edota erein duten nekazariekin erlazio zuzen bat eraikitzea (bataz beste zerealak gure plateretara ailegatu baino lehen 3000 km baino gehiago bidaiatu de-



zakete). Errota izateak hori suposatzen du, obradore eta lurraren arteko zubia da. Hasieratik gure proiektua laborarierekin elkarlanean izan behar zela ulertzen genuenez eta bestalde, semola (pasta egiteko erabiltzen den irin mota) industria haundiedienek markatzen dituzten bide hoietatik kanpo lortzea zaila zenez, modu teorikoan diseinatu-



tako errota martxan jartzea erabaki genuen

Ideiatik proiektu errealeraz zerk bultzatu zintuzten?

Jendearekin hitz egiten hasi ginen, aztertzen, Sizi-liara bidaiatu genuen, Valladolideko errotari zahar batekin ere izan ginen... eta guzti honek ideiatik errealitytatera saltoa ematera bultzatu gintuen.

Zergatik joan zineten Malagara proiektuarekin?

Ordurako argi genuen pasta egin nahi genuela. Hasi ginen aztertzen eta pasta egiteko gari gogorra behar denez honen hazkuntzarako klima bilatu genuen. Gari mota hauek klima lehorra behar dute eta Andaluzian oso kalitate oneko gari gogorrak ematen

dira. Nafarroan, Peraltan ere egin genuen frogatxo bat bertako nekazari ekologiko batekin baina egia esan oso urte txarra izan zen gariarentzat eta emaitzak ez ziren batere onak izan. Andaluziak emaitza hobea goak eta konstanteagoak eskaintzen zizkigun. Eta gero baita, nire neba jadanik Malagan bizi zen eta ni ere Agroekologiako masterra Baezan, Jaenen egin nuen eta bagenuen nolabaiteko lotura herrialdearekiko.

Produktua berez Andaluziatik kanpo ere eros daiteke...

Bai, azken produktua hasierakoa baino askoz gehiago mugitzen da. Izan ere pasta bezalako produktu bat ez da barazkiak bezala edo fruta egunero jaten diren produktuak. Hasiera-

«Egia da hasierako ideia beste modu batekoa zela, baina bidea aurrera egin ahala konturatzen zara bizitzan bide asko daudela eta pertsonentzat duina bada, zergatik ez»

tik bagenekien produktu final horrekin kilometro zero kontzeptua gehiago luzatu beharra zegoela. Guk baloreari gehiago jarri dugu lehengaia eta ekoizpen zentro horren arteko hurbiltasuna, gero produktu finala eta kontsumitzailearena baino. Guretzat kilometro zero kontzeptuaren barnean distantzia fisikoaz gain, bertan parten hartzen duten aktoren arteko botere harremanak ere neurtu beharko liriteke. Esate baterako, prezio politika bortitzak ezarritik laborarien eskubideak zanpatzen dituen gertuko erosle bate kilometro zero hortan kokatuko genuke? Gu erlaziotan oinarritzen gara batez ere, Andaluzian salmeta zuzenagoa egin dezakegu, baina hortik kanpo dauzkagun saltoki txiki edota kontsumo kooperatibekin erlazioa ere oso estua eta gardena da. Egia da hasierako ideia beste modu batekoa zela, baina bidea aurrera egin ahala konturatzen zara bizitzan bide asko daudela eta pertsonentzat duina bada, zergatik ez.

Errota ehotzen duzuen gari gogorra zuek landatzen duzue?

Guk ez dugu lurrik hemen Andaluzian. Baina hasieratik nekazal kooperatiba batekin lan egiten dugu, jada banatuta daude, baina beraietako birekin jarraitzen dugu elkarlanean, Juan eta Maximo Rodriguezekin hain zuzen ere. Nekazari hauek beraien baratzaren errotazioan gure

elkarrizketa

gariak sartzen dituzte. Elkarrekin erabakitzen dugu ze gari mota landatu, prezioak.... Orain arteko esperientzia oso ona izaten ari da.

Esan genezake Spiga Negra markaren baitan 3 baino gehiago zaretela?

Bai. Ez gara kooperatiba bat, hau dau, ez dugu marko legalik, baina nekazari hauek ere proiektuaren parte dira. Guretzat oso garrantzitsua da, beraien lurra eta batez ere jakinduria behar beharrezko ditugu, bestela ez genuke lortuko lortzen dugun kalitatea. Elkarlan bat da.

Garia eta irinaren sektorea

oso kontzentratua dago?

Bai hala da. Instalazio txikiak uzten joan dira, lurraldeetan ia ez dira errota txikiak geratzen, edo hari-nera txikirik ere ez. Inklusio ertainak ere desagertzen dabilta. Azkenengo 50 urteotan desagertzen joan diren irin fabrika txiki eta ertain horiek bertako laborari eta okinei ematen zieten zerbitzua. Gaur egun ordea, lurraldeetan gure dietaren oinarri den garia bezalako zerealak eraldatzeko toki gutxiago geratu dira edo oso instalazio haunditan bateratu dira. Gehienak ogigintza eta pastagintza industrialera bideratu dira eta talde enpresarial gutxi batzuen eskutan geratu dira. Gauzak

horrela laborari txikientzat aukera oso murrizta da, alde batetik oso prezio baxuak daude zerealetan eta bestalde, askotan ez dago non ehotu.

Eta Euskal Herriko egoera zein da?

Hemen zereala gehienbat Nafarroa hegoaldean eta Araban ekoizten da. Hemen egia da zerealista puruak direnak gero eta lur gehiago maneiatzen dituztela. Honen arrazoia argia da, azkenean zerealetik etekina ateratzeko lursail handia behar da, izan ere produktuak merkatuan oso balio gutxi dauka. Honek gero eta lur sail gehiago pertsona edo jabe gutxiagoren artean maneiatzea

dakar.

Zerealaren lehen transformaziorako erroten kasuan zer daukagu Euskal Herrian?

Datu ofizialen arabera Araban bakarra geratzen da, eta hau da erkidegoko bakar-rra, eta lau Nafarroan. Eta hauek ez dira errota txikiak, baizik eta harinera bezala funtzionatzen dutenak, hau da okinei zerbitzua emango dietenak. Hainbat herritan bai geratu daitezkeela errota txikiago batzuk, eta egia ere bada joera bat eman dela ekoizle txiki batzuen artean errota propioetan transformazioa egin eta okin txikiei modu askoz murriztagoan zerbitzua ematen diotenak.



«Nahiz eta hasierako
prezio hori
garestiagoa izan, nik
beti esan dut
garestien erosten
duzun ogia
zaborretara botatzen
duzuna dela»



Bi galera eman dira, bata patrimoniala eta bestea ekonomikoa. Bertako lehen gai bat transformatzeko aukera galdu dugu erroten galerekin. Eta kulturala noski, patrimonioa galtzen den heinean baita ere ofizioa bera ere galduz doa.

Ogia eta berau modu artisauro eta ekologikoan egiteko joera goraka doa?

Bai, badago joera hori. Ogiaren kultura esan genezake. Honek aipatutako erroten instalazioa eskatzen du, baina geratzen dena da errota horiek aspaldi galduta daudela. Eta hare gehiago, ogi on bat egiteko behar duzun gari mota eta panifikadora batek eskatzen duena ez da berbera, beraz, hasierako ekoizpen

hori ere galdua dago zati handi batean. Baina ez da negatiboa, guztiz kontrako. Aukera txiki bat irekitzeko posibilitateak ikusten ditut. Nekazari txikiekin lan hori berreskuratzea. Sektore honetarako momentu interesgarri bat izan daiteke hau.

Ekoizleak, artisauroak... eta kontsumitzaileen papera guzti honetan?

Kontsumitzaileak egin dezakeen aportaziorik hobereena produktu hori kontsumitzea da. Guk gero eta produktu hobekoak ekoiztu behar ditugu eta kontsumitzaileak re onartu beharko du modu artisauroan eta ekologikoan landutako elikagaiek beste prezio bat eduki behar dutela.

Ogiaren kasuan adibidez, panifikadora bateko ogia hurrengo egunean ez dago jangarri, ogi artisauro batek bestalde egun batzuk edo aste bat iraun dezake. Nahiz eta hasierako prezio hori garestiagoa izan, nik beti esan dut garestien erosten duzun ogia zaborretara botatzen duzuna dela.

Argi dago kontsumorik ez badago ez duela zentzurik ezer ekoizteak. Ikusten baldin badugu gure produktuarentzat ez dagoela kontsumitzaile masa kritiko nahikoa, berdina da ze kalitate daukazu, ez baldin badute erosten pena da baina itxi beharko duzu proiektua. Baina argi daukat pausuak ekoizpenetik eman behar direla.

Zergaitik?

Gaur egun kontsumoa oso azkarra da. Bat-batean hau modan dago, gero beste hori... Kontu handia izan behar dugu. Askotan kontsumitzaileak gauza bat eskatzen du telebistan edo interneten irakurri dutelako baina gure errealitatearekin ez dena egokitzen. Beraz ondo uztartzen jakin behar da. Eta ez dago formula majikorik, nik egia esan ez dakit nola egiten den hau modu egokian.

Ogia aipatzen duzu, eta pastaren mundua?

Oraindik okerrago. Pasta produktu merke bezala onartua dago gizartean. Lan eskerga daukagu egiteko.

Venta de proximidad de productos agroalimentarios

Han pasado casi 30 años de la celebración de las jornadas europeas sobre Desarrollo Rural organizadas por Ehne en Zestoa, donde se reafirmó que el papel que cumplen los pequeños y medianos base-rritarras es el de producir alimentos de calidad, y no el de ser productores de materia prima barata para la industria. Ya por entonces, se criticaba desde personas productoras y consumidoras la discriminación de la PAC, sobre todo hacia las pequeñas producciones. Se constataba a nivel europeo una reacción en contra del producto masificado de las granjas industriales y la importancia del mantenimiento de las pequeñas explotaciones como elemento esencial para la calidad de los alimentos y el papel fundamental que la venta directa tiene para el mantenimiento de estas pequeñas y medianas producciones. En una de las sesiones de debate de estas jornadas y frente a la creciente uniformidad impuesta por la dinámica de la comercialización de alimentos a gran escala traspasando fronteras, ya se mencionaba la importancia de recuperar la regionalización o comarcalización del proceso agroalimentario, como condición necesaria para conseguir un mejor equilibrio ecológico, económico, social y cultural de las propias regiones y comarcas y nuevamente se destacaba la necesidad de impulsar el comercio local, la venta directa y los canales cortos de comercialización, las producciones de

calidad,... Cuestiones que a día de hoy están muy presentes y no solo necesitan de una regulación, sino también, para su impulso, de una apuesta política de carácter estratégico.

VENTA DE PROXIMIDAD

El Gobierno Vasco, junto con las Diputaciones Forales, está trabajando en la regulación de la venta de proximidad de productos agroalimentarios en Euskadi. En este marco el pasado 4 de junio en Amorebieta-Etxano se celebró una jornada de carácter técnico "Venta de proximidad de productos agroalimentarios en Euskadi". De cara a una futura regulación de la venta de proximidad se aclaró el concepto "venta de proximidad" donde se incluye tanto la venta directa como el circuito corto de comercialización. Se realizó un análisis de la normativa (europea, estatal y de las CCAA) y lo que se ha trabajado en los últimos años desde las administraciones en esta materia.

Se realizó un repaso de la bibliografía existente sobre estas cuestiones, destacando lo que se recoge informe técnico "Marco legal de las producciones agroalimentarias locales y la venta directa"



elaborado por Elika (Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria), en el año 2016 con el objetivo de analizar la normativa a nivel europeo, estatal y autonómico, que sirva de base para articular medidas y/o legislación sobre la producción agroalimentaria local y la venta directa en Euskadi. Informe que concluye que estos conceptos, se citan en normativas existentes, sobre sistemas de producción diferenciada (calidad agroalimentaria) y en normativas sobre seguridad alimentaria (requisitos higiénico-sanitarios de la producción de alimentos/flexibilidad), no obstante, no existe normativa a nivel europeo ni estatal que regule la producción alimentos locales ni la venta directa como tal.

Informe donde también se recoge lo indicado por el Comité de las Regiones



de la Unión Europea en el año 2011 en el Proyecto de dictamen prospectivo "SISTEMAS DE ALIMENTOS LOCALES" elaborado a petición de la Comisión Europea en el que se recoge que "Cada vez son más las regiones que están examinando sus valores tradicionales, gastronómicos y agrarios, y que se traducen en sistemas de producción locales que no cumplen los criterios para ser registrados como DOP, IGP, ETG o producción ecológica (aunque tengan el potencial para formar parte de esas categorías), por lo que se hace necesario regular este tipo de producciones".

En otro estudio, en este caso del Ministerio de Agricultura en el año 2013, "Canales cortos de comercialización en el sector Agroalimentario". Estudio que

indica que aunque la legislación sanitaria europea (el llamado paquete de higiene) permite la adaptación a nivel de Estado Miembro para tener en cuenta las pequeñas producciones, la escasa adaptación de los requerimientos sanitarios a las pequeñas producciones representa un problema fundamental en la comercialización de productos transformados a través de circuitos cortos. Y que, hay que en cuenta, que los operadores de Canales Cortos de Comercialización son productores pequeños, a los que resulta muy costoso cumplir con los mismos requerimientos que se exige a empresas mayores, y precisan apoyo e incentivación, de una legislación o normativa facilitadora y la eliminación de trámites burocráticos, que en ocasiones pudieran ser fruto de una es-

casa sensibilidad de las administraciones hacia las necesidades y dificultades asociadas a esta actividad.

En esta jornada también se hizo un repaso de la normativa existente en otras comunidades autónomas, haciendo mención especial en:

- Galicia, donde un decreto del año 2014 regula la venta directa de pequeñas cantidades de productos primarios desde las explotaciones a la persona consumidora final. El ámbito de aplicación es la producción primaria (miel y productos apícolas, huevos, frutas y frutos silvestres, legumbres y hortalizas, setas y cereales), estableciendo los requisitos de higiene de los productos primarios, que quedan fuera del ámbito de aplicación del paquete de higiene. Limitando la comercialización a Galicia.

- Castilla y León, también en 2014, autoriza y regula la comercialización de determinados productos alimenticios directamente por el productor a establecimientos de venta al por menor (incluyendo restauración colectiva, restaurantes y otros servicios alimentarios similares). De esta manera se autoriza a los establecimientos de venta al por menor que suministran directamente al consumidor final, el poder proveerse de pequeñas cantidades de productos alimenticios de forma directa. Sólo se autoriza para este tipo de suministro: vegetales, setas, huevos y miel (y otros productos apícolas).

- Valencia, donde un decreto del 2017, regula la venta de proximidad de productos primarios y agroalimentarios. Con ámbito de aplicación para productos primarios como transformados. Establece los requisitos de higiene que quedan fuera del ámbito de aplicación del paquete de higiene (suministro de pequeñas cantidades de productos primarios y carne de caza

silvestre directamente a consumidor/a final o en circuitos cortos de comercialización) y más flexibilidad para pequeños/as elaboradores/as de producto transformados a través de Guías Buenas Prácticas Higiene). Se permiten los obradores compartidos por pequeños/as elaboradores/as agroalimentarios/as donde se realizan distintas actividades de manipulación y transformación de los productos agroalimentarios.

En Valencia se ha publicado una Guía Prácticas Correctas Higiene venta y preparación alimentos Mercados, y en Galicia la Guía para la comercialización de la producción primaria.

En cuanto a lo que se ha trabajado hasta la fecha en Euskadi en esta materia se destacó el diagnóstico de mercados y ferias, el establecimiento de Requisitos higiénico-sanitarios y adecuación de Registros y por último el Borrador de Decreto autonómico para regular venta proximidad que se está trabajando.

DIAGNÓSTICO DE LAS FERIAS Y MERCADOS

En lo que se refiere al diagnóstico de la ferias y mercados se han realizado diferentes estudios. El realizado en Bizkaia y Araba por Landatour y Elika con el objetivo de identificar la naturaleza de los puestos; la dedicación actividad agraria, el cumplimiento de requisitos (normativa consumo, fiscal, higiénico-sanitaria) a través de encuestas individuales a la persona encargada de la venta en el puesto, en Bizkaia y Araba han visitado 5 mercados. En concreto, Agurain (6 puestos), Amurrio (14 puestos), Durango (31 puestos), Gernika (62 puestos) y Portugalete (14 puestos). Y otro realizado en Gipuzkoa por la UPV-EHU - Landaola con el objetivo de analizar el impacto socio económico de los mercados locales para el diseño de una estrategia alimentaria territorial. La metodología utilizada en este caso además de encuestas a personas productoras (176 encuestas), tam-

bién se han realizado encuestas a personas consumidoras (396) y entrevistas a agentes clave del sector (Representantes del sector, asociaciones comarcales y técnicas, y representantes de la administración). Han sido 10 mercados los visitados, Arrasate, Azpeitia, Eibar, Tolosa, Ordizia, 2 en Donostia, Bergara, Zumarraga y Zarautz.

Las conclusiones más importantes del primero de ellos son las siguientes:

- se entiende que tienen un gran potencial. Son un canal de comercialización donde se vende mucho producto en relación a la cantidad que se comercializa.

- Existen muchos revendedores, y destacan los ex productores/as que se han pasado a la reventa. Edad avanzada de gran parte de ellos. Jubilados/as que venden lo poco que sacan, o que se han pasado a únicamente a comercializar.

- Algunos/as (sobre todo en Gernika) ni siquiera están en el REA (registro explotaciones agrarias) y el





REGEPA (Registro General de la Producción Agrícola) es la asignatura pendiente.

Por otra parte, el análisis de los mercados de Gipuzkoa depara estas conclusiones principales:

- El impacto económico de los mercados está relacionado con el perfil de la persona productora: Persona productora joven atrae a persona consumidora joven (transformados y eco) y persona productora de cierta edad atrae a clientes de mayor edad.

- Los mercados son nodos de atracción que dinamizan el comercio local circundante, traduciéndose en un impacto económico directo e indirecto destacable, aunque invisibilizado para el resto de actores de la sociedad. Impacto económico total de 80,2 millones de euros anuales.

REQUISITOS HIGIÉNICO-SANITARIOS PRODUCTOS Y REGISTROS

En cuanto a los requisitos higiénico-sanitarios, se profundizó en la aclara-

ción de lo que se considera producción primaria y lo que no, puesto que los requisitos dependiendo de esta consideración son diferentes. Así como en fases posteriores a la producción primaria (transformación) y en los requisitos de los productos transformados y se explicó el proceso que ha permitido la flexibilización de los requisitos higiénico sanitarios de las instalaciones y sistemas de autocontrol de los establecimientos para la transformación de productos lácteos y helados, huevos, productos vegetales y productos de panadería, pastelería y harinas. <https://seguridadalimentaria.elika.eu/s/curso-de-flexibilizacion-de-los-requisitos-higienico-sanitarios/>

En la cuestión de los registros de hizo hincapié en la necesidad de que toda las explotaciones que comercialice su producción deben estar inscritas en el REGEPA (Registro General de Producción Agraria), al igual que las explotaciones que se dedican a la producción ganadera tienen que estar en

el REGA (cuestión que ya se cumple).

BORRADOR DE DECRETO.

Se informó que se está trabajando en un Borrador de Decreto autonómico por el que se regula la venta de proximidad en Euskadi que establecerá: Los productos que pueden comercializarse bajo esta modalidad de venta. Los requisitos que deben cumplir dichos productos: higiénico sanitarios y de Registros. Las condiciones para la comercialización a través de la venta de proximidad (trazabilidad en la venta directa).

Para finalizar se estableció una hoja de ruta, comenzando con la redacción definitiva Borrador Decreto (Contraste con agentes y tramitación jurídica), formación e información en las OCAs, Grupo Focal con agentes sectoriales y finalizando con la elaboración de una Guía de Buenas Prácticas de Higiene junto con diferente material informativo.

Etxalde ttipietaz ikerketa abiatzen dute iparraldean

Etxalde ttipiak bestak baino lasterrago desagertzen dira, hainbat onura badituztelarik alta. Badu zonbait urte laborari talde bat biltzen dela gai hunen inguruan, denak laborari ttipiak, beren arranguren aipatzeko eta nola buru egin asmatzeko. Ezagupen ofizial baten beharra badela uste dute, lurraldearendako oso baiko-rra baita etxalde ttipi ainitz mantentzea.

Bi urte iraunen du ELB sindikatak abiatu duen ikerketak. Alde batetik iparraldean zonbat etxalde ttipi baden zenbatu nahi da. Frantziako laborantxa ministeritzan adostu den definizio batean oinarritzen da « etxalde ttipien » konzeptua. Hiru baldintza bete behar dira betan : 30 hektarea baino gutiago ukan (40 ha bi laborarik lan egiten badute), lehen pilarreko PAC laguntzak 15 000 euroz petik izaita urtean (20 000€ birentzat) eta negozio zenbatekoa (fakturazioa) 50 000 euroz petik izan urtean (62 500€ birentzat).

Ikerketa kualitatiboa eraman nahi dute ere. Hortarako 30 etxalde ttipi aztertuko dira, produkzio desberdinetan ari direnak. Nola lan egiten duten et-



xalde ttipiek eta zer aniztasun baden tipologian erakutsi nahi da. Bakotxaren lanaren gibelean, lurraldeari zer ekartzen zaion, sozial, ekonomiko ala ingurumen mailan ohartarazi nahi dute inkesta eramaileek. « Etxalde ttipiek irudi ezko-rra dute laborantxa munduan ; ez direla produktiboak, ez direla bizigarriak, etab, entzuten dugu usu. Bainan produkzio moldeetan, paisaien zaintzea ala herriko bizian ainitz ekartzen dute », dio

ELBk.

Emaitzetaz jabetu ondoren, errealitate hori arduradun politikoeri zabaltzea du helburu sindikatak. Etxalde ttipiek lurraldeari zer ekartzen dioten frogatu eta hainbat proposamen eraiki nahi dituzte ELBko laborari ttipiek, politika publikoetan sustengu adierazgarria emana izan dadin.

Laborariek hartzaz duten iritzia zehazteko...

Hartzaren gaiak eztabaidak sortzen ditu ipar Euskal Herrian, joan den udazkenean bi animale gehiago sartu dituztenetik Biarnoan eta horietaririk bat Xiberuraino etorri delako ere ardi hiltzera.

Hartzak gizartean irudi aski baikorra duelako, eta bioaniztasunaren aldeko urrats gisa aurkeztua baita hartz berrien sartzea, elgar ulertzea aski zaila da laborantxa mundukoa ez den jendea eta hazleen artean.

Predazioaren ondorio guziak zoin diren, mendiko laborantxaren egoera zoin den, ekologia eta bioaniztasunaren aldeko gaiak barnatzeko ere, bi gaualdi antolatzen ditu ELBk hartzaren gaiaz. Hazleak zergatik hartzaren presentziaren aurka diren aipatuko da, herritarrekin elkar trukatzeko xedearekin. Hitzorduak emanak dira : uztailaren 4an, 21.00 Aiznizan EHLGn, uztailaren 5ean, 20.00, Baionan Elkarteetan.

Isunak galdegin ditu epaileak ELB eta ahate hazleen aurka



Azaroan izan zen lehen auzia, Barkoxeko Ühartia etxaldearen eta ELB sindikataren aurka. Ekainaren 18an, berriz ere epaituak izan dira ELB eta ahate hazleak, duela bi urte burutu ziren mobilizazioengatik. Epaileak 500€ eta 2000€ arteko isunak eskatu ditu.

Hegazti gripeak azkar jo zituen Frantzia hegomendebaldeko hazkuntzak 2017ko udaberrian. Baxe Nafarro eta Xiberurat ere hedatu zen eta ahate hiltze politikak aplikatu ziren epidemiaren gelditzeko helburuarekin.

Milaka ahate sano hiltzen zirelako eta etxalde batzuentzat neurritz kanpoko erabakia zelako, ahate hazle batzuk, ELBk sustengaturik, ez zuten onartu beraien animaliak hiltzea. Mobilizazio azkarrak izan ziren admi-

nistrazio sanitarioa etorri zelarik etxaldetarat, ehunka laborari, herritar eta hautetsik jende harresia sortu baitzuten bidea ez uzteko ahate hiltzera heldu ziren teknikarieri. Bi aldiz etorri ziren, aste bat barne, eta bi aldiz itzuli izan behar zuten, mobilizazioagatik.

Ondorioz, laborariak zigortu nahian, auzi bidea ideki zuen administrazioak eta bi auzi izan dira. Joan den azarokoan, Barkoxeko Cathy Chabalgoity xuritu zuen epaileak bainan 7000 euroko isuna finkatu zuen ELBren kontra.

Ekainaren 18ko auzian, Baionan, Domintxineko laborari bat eta Bidaxuneko etxalde bateko hiru laborari epaituak izan dira, bai eta ELBren izenean Panpi Sainte-Marie idazkari nagusia. Ekintzak beharrezkoak zi-

rela argudiatu dute laborariak, etxalde ttipien eta kanpoko hazkuntzaren berezitasunak plazaratzeko. Kriaxera izeneko tokiko ahate arraza Bidaxuneko etxaldeak baizik ez duela sortzen azpimarratu dute ere, etxaldeko ahateak hilez, arraza bat desagertzen zela ohartarazi dute. Hau guziagatik ezin zela onartu hiltze operaziorik erran dute guziek.

Delitua izan dela eta hau ezin dela onartu adierazi du fiskalak eta isunak galdegin ditu guzien aurka : orotarar 4300€ gibelapenarekin Domintxineko Jean-Michel Berho ahate hazlearen aurka, 3500€ gibelapenarekin Bidaxuneko etxaldeko laborarien aurka eta 2000€ ELBren aurka.

Erabakia jakinen da uztailearen 23an.

Los nuevos agricultores/as deben liderar las estrategias frente al cambio climático para garantizar un modelo de agricultura sostenible y rentable



La FAO estima que en 2050 la producción agraria debería aumentar un 70% para poder dar de comer a toda la población: 10.000 millones de bocas que alimentar. Los recursos naturales son finitos y el cambio climático una realidad: es imprescindible mejorar la productividad sin multiplicar el uso de recursos naturales.

Los nuevos agricultores, millennials digitales, están ya impulsando una nueva manera de entender la agricultura. Saben que deben

